

KULTUR ONDAREA





“Zure Donejakue bidea, denon ondarea” heziketa-programaren oinarri diren eta hemen aurkezten dizkizuegun **ONDAREARI BURUZKO FITXAK** baliagarriak dira ikasleekin Santiago bideko kultur ondarearekin lotutako hainbat alderdi lantzeko.

Fitxen ordena Bideko etapen ordenaren antzekoa da. Fitxekin egindako lanetik ateratako ondorioak irekiak izango dira eta beste eduki tematiko batzuetan ateratako ondorioekin erlazionatu ahal izango dira.

Fitxak ez dira “erabilera-eskuliburu” bat. Ikasleen ezaugarrien eta interesen arabera, irakasleek gehien komeni zaizkien fitxak jarraibide gisa erabili ahal izango dituzte.

Fitxak honela egituratzen dira:

→ Hasiera batean, eta ideia-jasa gisa, irakasleak ikasleen hezkuntza-beharretara egokitu ditzakeen item batzuk proposatzen dizkizuegu. Helburua ez da ikasleek kontu bakoitzari erantzun bakarra ematea, baizik eta denon artean erantzun globalak bilatzea eta erantzun horiek irakasleak antolatutako talde malguetan elkartuta eztabaidatzea.

→ Planteatutako kontuei emandako erantzunak elkarri azaldu ostean, ikasitakoa osatzeko, **GURE PROPOSAMENA** atalean, irakasleak bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo egin daitezkeen hainbat jarduera aurkituko ditu.

Bai itemen bai jardueren planteamendua diziplinartekotasunean eta ikaskuntza kolaboratiboan oinarritzen da. Hortaz, ikasgelaren programazioetan sekuentziatu ahal izango direnez, fitxak curriculumeko ikasgai desberdinetan Donejakue bidea azaltzen duten eduki teorikoak ukitzen dituzten unitate didaktikoei itxiera emateko erabil daitezke.

Hemen aurkezten ditugun materialarekin egindako lanaren azken xedea Donejakue bideari buruzko sorkuntza artistikoko lanak sortzea izango da.

Bide ona opa dizuegu

4. ETAPA

Kultur Ondarea

DONEJAKUE BIDEKO kultur ondarea

Erromesek bidaia egitean sarrien nabarmentzen duten xehetasunetako bat Donejakue bidearen balio kultural handia da. Era berean, “**Zure Donejakue bidea, denon ondarea**” heziketa-programaren xedea bideari lotutako ondarearen ezagutza sustatzea da. Hortaz, Bidea alderdi desberdinetatik azter badaiteke ere, horretan jarriko dugu arreta.

Gogoan duzue ikasleek Bideak gaur egun duen zentzuaren gainean prestatutako iritzi-zerrenda? Kultur ondarea agertu al zen?

Agian ikasleak ez dira ohartu ikasgelan aipatu izan diren Bidearen inguruko hainbat kontzeptu kultur ondarean txertatu daitezkeela. Guk prestatu dugun zerrendatik, **zein kontzeptu sartuko zenituzkete kultur ondarean?**

Bilaketa pertsonala / Esperientzia / Lagunak / Historia / Natura eta paisaia / Tradizioa / Gastronomia / Turismoa / Moda / Kirola / Ondo pasatzea / Aisia / Artea / Promes bat

Pentsa baino alderdi gehiago barne hartzen ditu kultur ondarearen kontzeptuak, ondare mota desberdinak baitaude. Azter ditzagun elkarrekin.


Kultur ondarea ezagutzea hura baloratzeko eta babesteko lehen urratsa denez, etapa honen helburua kultur ondarearen kontzeptua, hainbat ikuspegitik ikusita, definitzea izango da.

Besteak beste, galdera hauei erantzungo diegu: norena da ondarea? zergatik da garrantzitsua? eta zer mezu helarazten du? Funtsezkoa da parte-hartzaileak inplikatzeko, haien iritzia eman, partekatu, gaia aztertu, kritikatu eta balora dezaten. Horrek testuinguru kulturalakiko ikasleen ikuspegia hobetzen eta testuinguru horietan ikasleek duten rola areagotzen lagunduko du.

Kultur ondarea, zentzu zabalenean, produktua eta prozesua da aldi berean: iraganetik jaraunsten diren, orain sortzen diren eta hurrengo belaunaldiei haien mesedetan transmititzen zaizkien baliabide ugari ematen dizkie gizarteei. Kontuan hartu behar dugu ondare materialaz gain, ondare natural eta immateriala ere barne hartzen dituela. Baliabide horiek hauskorrak dira eta, hala diren neurrian, baliabideen aniztasuna eta berezitasuna zaindu eta errespetatzen dituzten politikak eta garapen-ereduak behar dituzte; izan ere, galtzen baditugu, ezingo ditugu inoiz berreskuratu.

Iturria: UNESCO

ZER DA kultur ondarea?



Beharbada, ikasleek ez dute ondo jakingo zer den kultur ondarea. Kontzeptu hori ulerterrazagoa izan dadin, jarduera arin bat proposatzen dizuegu:

Eskatu ikasleei baliotsutzat jotzen dituzten haien objektuen zerrenda prestatzeko. Zergatik dira hain preziatuak?

Zer onura ekartzen dizkiete? Haiek gabe bizi al daitezke?

Beraz, ondarea pertsona batek dituen ondasunak dira, baina badago baita ere guztion ondare bat.

Ondareak pertsonak ematen diogun balioa izango du. Ondorioz, balio hori denborarekin edo ondarea aztertzen duen testuinguru kulturalaren edo gizartearen arabera alda daiteke:

erabilera-balioa, balio sinbolikoa, balio sentimentala, eta abar.

Gizarteek gauza batzuk besteak baino gehiago baloratzen dituzte

Adibidez, pentsa dezatela haientsat baliotsua zen baina orain baliorik ez duen zerbaitetan. Zergatik gertatu da hori?

Gainera, objektu materialak baino ez zaizkie bururatu? Ondareak alderdi immaterialak ere barne hartzen ditu. Aurrerago helduko diogu horri.

Laburbilduz:

- **norberaren ondarea eta denon ondarea existitzen dira;**
- **ondarearen balioa pertsonaren arabera da;**
- **ondarea ez da soilik materiala**

Behin ondarearen ezaugarri batzuk ulertuta, zuen ustez, **zer alderdik garamatzate kultur ondareaz hitz egitera?**

1972ko UNESCOren Munduko Kultur eta Natur Ondarea Babesteko Hitzarmenaren arabera, kultur ondare dira:

• **Monumentuak:** lan arkitektonikoak, eskulturak edo pintura monumentalak, izaera arkeologikoko elementuak edo egiturak, inskripzioak, leizeak eta elementu-multzoak, historiaren, artearen edo zientziaren ikuspuntutik ohiz kanpoko balio unibertsala dutenak.

• **Multzoak:** eraikuntzen taldeak –bakartuta edo elkartuta egon–; baldin eta haien arkitektura, batasuna edo paisaia duten integrazioa dela-eta ohiz kanpoko balio unibertsala badute historiaren, arteareneko zientziaren ikuspegitik.

Adibidez, Burgosko katedrala, Bizkaiko zubia edota Lugoko harresiak.

Esaterako, Tarracoko multzo arkeologikoa edo Santiago de Compostelako hiri zaharra.

- **Tokiak:** gizakiaren lanak edo gizakiak eta naturak batera egindako lanak, bai eta historiaren, estetikaren, etnologiaren edo antropologiaren ikuspegitik ohiz kanpoko balio unibertsala duten toki arkeologikoak ere.

Baita Atapuercako aztarnategi arkeologikoa ere.

Unescok ezartzen duen definizioa oinarri hartuta, **ikasleen inguruko zein elementu datoz bat definizio horrekin?**

Proposatuta ikasleei kultur ondareztat jotzen dituzten elementuen zerrenda prestatzea, zuek parte hartu gabe.

Horrela ikusiko dugu zeri ematen dioten balio handiagoa. Zerrenda aurrerago erabiliko duzue.

• **Monumentuak:** ...

• **Multzoak:** ...

• **Lugares:** ...

Zuen aburuz, kontuan hartzekoa den monumentu, multzo edo tokiren bat ez badute zerrendan sartu, litekeena da ikasleentzat ezezaguna izatea. Zaila da ezagutzen ez duguna baloratzea. Horixe bera da heziketa-programa honen premisetako bat.

Azken finean, kultur ondarearen ideia bera erlatiboa eta aldakorra da. Ez da soilik monumentu, multzo edo tokien sailkapena, une bakoitzean gizarteak ematen dizkieten

balioetara moldatzen da, gizarteak baitira balioa ematen diotenak. Hortaz, gizarteak arduratu behar dira ondare hori babestea, hurrengo belaunaldien legatua galdu ez dadin.

Adibidez, gaur egun hain gertu dugun eta hainbeste erabiltzen dugun teknologia (mugikorrak edota ordenagailuak), urte gutxi barrena, museoan pieza bihurtuko dira; izan ere, batzuk museoan daude dagoeneko. Kultur ondareak gure oraina ere baloratzen du.


Orainak bere ondare propioa utziko digu. Noizbait pentsatu al dute hori? Ikasleen ustez, zein objektu gordeko dira museoetan?

Idea horren inguruan, gaur egun, informazioa nola gordetzen dugun (formatu digitalean, Internet orrien bidez) aipatu behar dugu. Biltegi horiek desagertuko balira, informazio-galera liburutegi baten galeraren parekoa izango litzateke.

Gehiago jakiteko:

<https://www.europeana.eu/portal/es>

<http://www.bne.es/es/Catalogos/BibliotecaDigitalHispanica/Inicio/index.html>



ONDAREAREN

beste kategoria batzuk

Ikusi dugu kultur ondareak elementu desberdin asko barne hartzen dituela, baina UNESCOk beste bi kategoria ere lantzen ditu: **naturala eta immateriala**.

Hasiera batean, kultur ondarea balio historiko, estetiko, arkeologiko, zientifiko, etnologiko eta antropologikoa duten eraikuntza-multzoak eta tokiak zirela ondorioztatu zen. Baina, denbora aurrera joan ahala, kultur ondarearen kontzeptuan artistikoak ez diren baina gizateriarentzat balio bera duten beste hainbat elementu txertatu dira, hala nola formazio fisiko, biologiko eta geologikoak, zientziaren, kontserbazioaren edota naturaren edertasunaren ikuspegitik balio berezia duten eremuak, eta animalia zein landare mehatxatuen habitatak.

Arestian aipatutako 1972ko UNESCOren Munduko Kultur eta Natur Ondarea Babesteko Hitzarmenak kultur ondareztat jotzen ditu baita ere:

- **Monumentu naturalak**, adibidez, **Bierzoko medulak**.
- **Formazio geologiko nahiz fisiografikoak, eta hertsiki zedarritutako eremuak**, adibidez, **Parque Nacional del Teide**.
- **Hertsiki zedarritutako leku naturalak edo naturaguneak**, adibidez, **Pirineos - Monte Perdido**.

Ondare mota bakoitza (kulturala eta naturala) zertan datzan azaldu ondoren, alderatu aipatutako ondare kultural eta naturalaren adibideak, edo ikasleei bururatzeko zaizkien beste batzuk, eta erantzun galdera honi:

Zeintzuk dira bi ondare moten arteko alde nagusiak?

Ondarearen kontzeptuak izan duen eboluzioaren ondorioz, duela gutxi ondare immaterial izeneko tipologia berria sartu da: kultura batetik datozen eta tradizioan oinarri duten kultura tradizional eta herrikoi edo folklorikoaren adierazle guztiak. Tradizio horiek ahoz edo keinu bidez transmititzen dira, eta, denbora igaro ahala, aldatzen dira birsorkuntza kolektiboko prozesu baten bitartez.

Hona hemen adibide batzuk:

- gastronomia tradizionala (esaterako, dieta mediterranea edo Errioxako ardoaren garrantzi kulturala eta herentzia)
- jaiak eta herri-adierazpenak (esaterako, Bilboko Aste nagusia)
 - musika tradizionala (esaterako, musika zelta)
- dantza tipikoak (esaterako, Espainiako hainbat eskualdetako jota)
- ahozko esamolde edo elezaharrak (Teruelgo maitaleak edo Leongo filandon)

Ikusi nola definitzen duen ondare immateriala Ondare Immateriala Babesteko 2003ko Parisko Konbentzioak:

<https://ich.unesco.org/es/que-es-el-patrimonio-inmaterial-00003>

Unescok ezartzen duen definizioa oinarri hartuta, ikasleen inguruko zein elementu datoz bat definizio horrekin?

Eskatu ikasleei ondare immaterialtzat jotzen dituzten elementuen zerrenda prestatzeko, zuek parte hartu gabe. Horrela ikusiko dugu zeri ematen dioten balio handiagoa. Zerrenda aurrerago erabiliko duzue.

Gure I. proposamena: EKultur ondarearen gainean aurretik prestatu duzuen zerrenda...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

7. ETAPA

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA ondarea?

Agian goiko dinamiketan egindako zerrendetan agertzen den ondarea garrantzitsua izango da zure ikasleentzat. Unea iritsi da zera galtzeko:
zertarako balio du honek guztiak?

Eta, erabilera alde batera utzita, zergatik da garrantzitsua kultur ondarea?

- Ondareak **identifikatzen** gaitu.
- Ondareak **iraganarekin dugun lotura estutzeko** balio du.
 - Ondarea **baliabide ekonomiko** garrantzitsua da.
- Ondareak **hezkuntza-balioa** du; adibidez, jendea hobeto ulertzen, diferentzia eta aniztasuna errespetatzen irakasten digu.

Komentatu ditugun kultur ondarearen berezitasun horiek sakon landuko ditugu hurrengo fitxetan.

Kultur ondarearen beste alderdi garrantzitsuren bat txertatu nahi al duzue? Hori ere landu dezakezue. Gogoan izan fitxak gida malgu eta irekia besterik ez direla.

Ondare pertsonala ikasleentzat garrantzitsua den bezalaxe, kultur ondarea pertsona askorentzat garrantzitsua da. Inguruko kultur ondarearen gainean ikasleek prestatu duten zerrendak ondare bihur daitezkeen elementuak daudela, hau da, ondasun batzuei besteei baino balio handiagoa ematen diegula, ulertzen lagunduko digu.

Hori normala da, denoi gertatzen zaigu. Irizpide pertsonalen (irisgarritasuna, hurbiltasuna, familia edo lagunekin duen lotura, gustu pertsonalak, eta abar) arabera erabakitzen dugu zein den gehien interesatzen zaigun ondarea.

Elementu horiek hautatzera bultzatzen gaituen irizpidea edozein izanik ere, azkenean, identifikazioa da gakoa.

("Ondarea eta nortasuna fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu)

NORK ERABAKITZEN DU zer bihur daitekeen

8. ETAPA

Kultur Ondarea

Kultur ondarea, museo batean zaintzeaz gain, publikoaren eskura jarri behar da edo gehiengoarentzat irisgarria izan behar du. Garrantzitsuena eta ondareari zentzua ematen diona zera da: gizarteak ondarea bere egitea, transmititzea eta bizitzan txertatzea. Horregatik, ondarearen garrantzia gizarteak berak, zuek, erabakitzen duzue.

Komunitate, herri/hiri eta talde bakoitzak erabakitzen du zer den garrantzitsua haientzat. Hortaz, guk geuk hautatzen dugu gure kultur ondarea.

Beharbada, ikasle-talde honek beste taldeetatik bereizten duten hainbat ezaugarri izango ditu. Zeintzuk dira ezaugarri horiek?

Eta ikastetxeari dagokionez, zein elementuk bereizten dute ikastetxea herri edo hiriko beste ikastetxeetatik?

Eta zuen herri edo hiriak, zein berezitasun ditu besteen aldean?

Zuen probintzian, zer da nabarmentzekoa ingurunearekin alderatuta?

Eztabaidan azaltzen diren **alderdi positibo** horiek ez dira erabili behar ikasleen arteko lehia sustatzeko, baizik eta batak bestea, merezi dugun tratua bera jaso behar duen izaki paregabe gisa, ezagutzen eta errespetatzen ikasteko.

Kultur ondarearekin gauza bera gertatzen da. **Ikasleei transmititu behar diezu ondarearen balio esanguratsuenetako bat aniztasuna dela.**

Ondarearen bitartez, besteak desberdinak direla eta haiek errespetatzen ikasten dugu. Ondareak, bereizi baino, elkartu egiten gaitu.

Hortik abiatuta:

ba al dago Espainiako kultur ondarean denak batzen gaituen elementuren bat?


Kultur ondarearen elementu askok gure arteko lotura estutzen lagun dezakete.

Baten bat datorkizue burura? Adibidez, Arte Erromanikoa europar guztientzat.

Ikasleek, zehazki, Donejakue bidea lotura-elementu gisa aipatzen badute, esan daiteke bide onetik goazela.

Gogoan izan herri edo hiri bakoitzaren ezaugarri horiek aitortza merezi dutela, ezagutzera eman eta belaunaldi batetik bestera transmititu behar direla. Horixe da **“Zure Donejakue bidea, denon ondarea”** heziketa-programaren baitan proposatzen dizuegun lanaren helburua. Egiten duzuen sormen artistikoko lana Santiago de Compostelan erakutsiko da.

Aukeratu duzue jada parte hartzeko kategoria?



9. ETAPA

Kultur Ondarea

NORK BABESTEN DU

ondarea?

Administrazio publikoak arduratzen dira kultur ondarea babesteaz, eta Espainiako Ondare Historikoaren Legeak zein autonomia erkidegoen ondasunari buruzko legeek osatzen dute araudi aplikagarria.

("Ondarea eta kontserbazioa fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu)

Hala ere, herritarrei ere dagokie ondarea babestea, ez bakarrik Administrazioari. Ulertu badugu ondarea denona dela, denak gaude behartuta hura zaintzera.

Nor da ikasleek aipatutako objektu baliotsuak babesteko interes handiena duena?

Garrantzitsua da hori ulertzea; izan ere, ondarea denok babesten dugunean ematen diogu benetan balio sinbolikoa, eta ez soilik balio materiala. Ondarea eguneroko ekintza txikien bidez babesten da. Denok gure ekarpen xumea egiten badugu gertatuko da aldaketa.

Guztion ondarearen babesaren kontzeptua hezkuntzako lehen etapetatik lantzen da ikasgeletan. Baina Bigarren Hezkuntzan hasten dira ikasleak definizio pertsonal eta sozialaren gainean hausnartzen, nerabeak norberaren burua finkatzeko eta bizitza heldurako tresnak garatzeko prozesuan murgilduta baitaude.

Une horretan kultur ondareak norbera identifikatzeko balio du, erreferentzia gisa hartzen dugu gure balio-eskalan; horregatik da une aproposena ondarea balioesten ikasteko.

("Ondarea eta nortasuna fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu)

Lehenago esan bezala, kultur ondarea pentsatzen duguna baino are gehiago da: musika, hizkuntzak, gastronomia, festak, jokoak, zaletasunak, eta abar. Beraz, ulertzen al dute ikasleek gogoko duten musika mota, egiten dituzten kirol eta jokoak edota haien zaletasunak kultur ondare ere direla?

Kultur ondarearen babesa azaltzean arreta ez dugu soilik museoko objektu eta monumentuetan jarri behar, elementu guztiak dira garrantzitsuak.


Hala ere, egia da ondarearen barruan kategoria batzuk ezartzen direla, hainbat irizpideri jarraiki. Kategoria garrantzitsuena **Gizadiaren Ondarearena** da, "balio unibertsal paregabea" aitortzen duelako. Aitortza hori ondarea babesteko modu bat da ere.

Elementu garrantzitsuenak Gizadiaren Ondarearen zerrendetan sartzen dira, hori baita UNESCOk gizateriarentzat (haren memoriarentzat, nortasunarentzat eta hurrengo belaunaldientzat) balio paregabea duten ondasun kultural edo leku espezifikoak ematen dien titulua. Gizadiaren Ondarea 161 estatuko 1.007 elementuk osatzen dute. Haietatik 779 kulturalak, 197 naturalak eta 31 mistoak dira. Hemen aurkituko duzue zerrenda eguneratua:

<http://whc.unesco.org/en/list/>

KULTUR ONDAREA

Espainian



Espainiak kultur ondare aberats eta askotarikoa du. Herri edo hiri bakoitzak bere ondarea du. Handia ala txikia izan, mota batekoa ala bestekoa, zuen ondarea oso garrantzitsua da. Horregatik, lehenik, zuek ondo ezagutu behar duzue gero plazara ateratzeko. Hala, zuen inguruko kultur ondarea ezagutzen ez duten guztiek baloratu eta errespetatu egingo dute.

Esan dugu dagoeneko ondarea babesteko Espainiako Ondare Historikoaren Legea dugula. Legeak hainbat babes-maila ezartzen ditu. Legean, ondare-elementuak **Interes kulturala duten Ondasunen Erregistro Nagusian** sartzen dira, eta **ondasun higigarrien** (kaltetu gabe lekualdatu daitezkeenak) eta **ondasun higiezin** (ezin daitezkeenak lekualdatu) arteko bereizketa egiten da.

Inguruko zer adibide datozkie burura ikasleei?
Zuen herriko zein ondare-elementu dira higigarriak edo higiezinak?

Bestetik, autonomia erkidego bakoitzak ondareari buruzko legeria propioa du, bai eta babesten dituen ondasunen erregistro, katalogo edo inbentario bat ere. Lege horien bidez, erkidego guztiek haien ondare-ondasunak babesteko eskumena hartzen dute, ezarritako kategoriei jarraiki. Esan bezala, **Interes Kulturalako Ondasunek** dute babes handiena.

Halaber, beste herrialde askotan aurki dezakegu kultur ondarearen gaineko legeria eta erregistro bat. Kontuan izan, geuk gure ondarea baloratzen eta babesten dugun bezalaxe, mundu osoan baloratzen eta babesten dutela haiena.

Erregistroko ondasunak esteka honetan aurkituko dituzue:

<http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/patrimonio/bienes-culturales-protegidos/niveles-de-proteccion/regimen-general.html>

Unescok Espainiako ondasun kultural bat **Gizadiaren Ondare** izenda dezan, horren aurretik, Erregistroan, **Interes Kulturalako Ondasun** izendatu beharko du.

Zuen herri edo hiritik gertuko ondarearen gaineko zerrendan (I. proposamena) sartu dituzuen izen batzuk ez daude Gizadiaren Ondarearen zerrendan? Zergatik?
Ez al dugu esan zuen ondarea besteena bezain baliotsua dela?

Zuen ondarea zerrendan sar liteke, jakina; baina, horretarako, prozesu bat gainditu beharko luke. Adibidez, ba al dakite ikasleek herrialde bakoitzak zerrenda horretan sartzeko hautagaitza bakarra aurkez dezakeela deialdi bakoitzean? Horregatik, hautagaitza ondo aukeratu behar da, ez baitituzte onartzen herrialde guztien proposamenak. Aurkezten diren proposamenen artean gutxi batzuk bakarrik sailkatzen dira.

Eta, sailkapen horretan sartzeko, aurretik ahalegin handia egin behar da, hau da, pertsona askok hainbat urteko lana eta dedikazioa eskaini behar diote. Bestetik, Gizadiaren Ondarearen Zerrendan egoteak zenbait konpromiso dakar berekin, hala nola agintari eskudunak izendatutako ondasunaren kudeaketan, ikuskaritzan, zainketan eta hedapenean lan egiten jarraitzea. Hala ere, zerrendan sartzea ez da helburua, ondarea hobeto zaintzeko eta babesteko hasiera baizik

Zer egin duzuen zuen ustez Gizadiaren Ondarearen zerrendan egotea merezi duten elementuak zerrendan sartzeko?

"Ondarea eta kontserbazioa fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu

Ez pentsa administrazioak bakarrik egiten dituela ondarea zerrenda horretan sartzeko proposamenak eta ahaleginak. Gizarte zibilak (elkarteek, adibidez) ere lan handia egiten du zentzu horretan.

Zuen eskualdean ba al dago kultur ondarearen kontserbazioan edo defentsan aritzen den elkarteren bat?

Eta zuen ikastetxean, zer egin zenezakete kultur ondarearen alde?

Badakigu ikastetxe askotan lehen urratsa eman duzuela eta gai hau sarri lantzen duzuela, kultur ondarearen alderdi guztiak erakutsiz, existitzen diren ondare motak aztertuz eta ikasleei ondarkeri buruzko askotariko lan artistikoak egiteko eskatuz.

Hala dela egiaztatu dugu zuen webgune eta blogetan. Ikusi dugu argazkigintzaren, zinemaren edota marrazketaren bitartez, ondarea eta beste gai garrantzitsu batzuk (osasuna, bide-hezkuntza, errespetua, tolerantzia, etab.) modu baliagarri eta hezigarrian jorratzen dituzuela.

Oraingoan Donejakue bideko zuen ondarea baliabide gisa erabiltzea eta, heziketa-programa honetan parte hartuz, beste urrats bat ematea proposatzen dizuegu. Guztion artean ondarea ezagutzera emango dugu lan artistiko berrien bidez: lanak gure webgunean erakutsiko ditugu eta, amaiera gisa, Santiago de Compostelan egingo dugun aldi baterako erakusketan egongo dira ikusgai.

Gure II. proposamena: Espainian, Gizadiaren Ondarearen zerrenda oso luzea da: 45 ondasun barne hartzen ditu...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Gure III. proposamena: Hurrengo web-estekan gizadiaren kultur ondare diren Espainiako ondasunen zerrenda aurkituko dugu...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Espainiako Gizadiaren Ondarea zein elementuk osatzen duten ikasi ondoren, bat aukeratzekotan zein aukeratuko zenukete? Eta zergatik?

II. ETAPA

Kultur Ondarea

DONEJAKUE BIDEA

gizadiaren ondare gisa

Zein aukeratu duzue guztien artean?

Guk ezingo genuke bat bakarrik aukeratu. Bidegabea litzateke. Baina esan dezakegu badagoela berezitasun ugari dituen ondasun bat. Joan zaitezte aukerak baztertzen.

Zerrendako 45 elementuetatik zeinek betetzen ditu puntu guztiak?

1. Hainbat autonomia-erkidegotan dago.
2. Milioika pertsonen partekatzen dute.
3. Ondare materiala, naturala eta immateriala elkartzen ditu.
4. Herrialde bat baino gehiagotan dago.
5. Bizirik dirau eta egunero hazten jarraitzen du.
6. Pertsonak eraldatzeko ahalmena du.
7. Balio asko transmititzen ditu.

Seguruenik, jakingo duzue Donejakue bideaz ari garela eta, beharbada, pentsatuko duzue ez garela inpartzialak. Heziketa-programaren izenak berak salatzen gaitu. Baina zaila da ezaugarri hauek guztiak dituen ondasun bat aurkitzea:

1. Espainia osoa zeharkatzen du.
2. Ezin konta ahala dira XII. mendetik bidea egin duten pertsonak.
3. Kultur ondare aberatsa, paisaia natural paregabeak eta edozein zerrendatik harago doan ondare immateriala ditu.
4. Ibilbidea Europa osoan da ezaguna.
5. Santiagora iristen den erromes bakoitzarekin hazten da.
6. Baten batek egin badu, badaki zertaz ari garen.
7. Adiskidetasuna, elkartasuna, debozioa, eta abar.

Horregatik guztiagatik, Donejakue bidea Gizadiaren Ondare baino askoz gehiago da: pertsona asko elkartzen dituen eta pertsonak mugetatik harago konektatzen dituen esperientzia.

Iritsi da zuen momentua. Bidaia aurrera egiten du eta Bidean non zaudeten erakusteko txanda iritsi zaizue. Gure heziketa-programan parte hartu nahi duzue?

EUROPAKO KULTUR ONDAREAREN URTEA

Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2018a Europako Kultur Ondarearen Urtea izango zela adostu dute.

Europako kultur ondarea ez da soilik iraganeko legatua, etorkizunerako ezinbesteko baliabidea baizik, hezkuntza- eta gizarte-balio ukaezina, indar ekonomiko gogoangarria eta, nazioarteko kooperazioan, dimentsio garrantzitsua baitu.

Oinarri horietatik abiatuta, Europako Urtearen helburuak hauek dira: Europako kultur ondarea, baliabide partekatu gisa, trukatzeko eta baloratzea sustatzea, historia eta balio komunen inguruan sentsibilizatzea eta Europako esparru komun bateko kide izatearen sentimendua indartzea.

Partekatzen dugun ondarea hobeto ulertzeak eta balioesteak, bereziki gazteen artean, Batasuneko kide izatearen sentimendua finkatzen lagunduko digu eta kulturarteko elkarrizketa indartuko du. Beraz, kultur ondarrerako sarbide handiagoa sustatu eta ondarearen dimentsio europarra handitu behar da.

Gure heziketa-programa Europako Urteko jardueretako bat da. Gehiago jakiteko:

http://europa.eu/cultural-heritage/eych-events-table_en

GURE PROPOSAMENA

Jarraian aurkezten ditugun proposamenak motibazio-jarduerak dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumeko gaitasunak eta edukiak osatzeko diseinatu dira, **“Zure Donejakue bidea, denon ondarea”** heziketa-programak ezartzen duen helburuaren baitan. Fitxa honetan ikasgai hauetarako proposamenak aurkituko dituzue:



HISTORIA GEOGRAFIA

Gure I. proposamena: Historia

Kultur ondarearen gainean aurretik prestatu duzuen zerrenda... ondare-elementu berri hauekin osatu daiteke.

Eskema txiki bat egitea proposatzen dizuegu: aipatu zuen herri edo hiritik gertu dagoen ondare mota bakoitzaren adibide bat eta adierazi zer motatakoa den: materiala, immateriala edo naturala. Horretarako, ondare mota hauek ditugu:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Hiri historikoak• Monumentu eta paisaia naturalak<ul style="list-style-type: none">• Urpeko kultur ondarea• Musika• Errituak eta sinesmenak<ul style="list-style-type: none">• Festak• Ondare mugikorra (koadroak, eskulturak, etab.)<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntzak• Ondare dokumentala eta digitala• Formazio geologiko eta fisiografikoak | <ul style="list-style-type: none">• Artisau-lanak<ul style="list-style-type: none">• Literatura• Ahozko tradizioak<ul style="list-style-type: none">• Dantzak• Leku natural edo naturagune zedarrituak<ul style="list-style-type: none">• Gastronomia• Kirol eta joko tradizionalak<ul style="list-style-type: none">• Medikuntza tradizionala• Ondare zinematografiko eta fotografikoa<ul style="list-style-type: none">• Leku natural sakratuak |
|---|---|

Baten bat ahaztu dugu? Zein kategoriatan sartzen da Donejakue bidea? Gorde zerrenda, aurrerago beharko dugu-eta.

Gure II. proposamena: Giza espazioa

Espanian, Gizadiaren Ondarearen zerrenda oso luzea da: 45 ondasun barne hartzen ditu... Ondasun izendatu gehien dituen hirugarren herrialdea da. Baliatu dezagun aukera hau ikasleek ondasun horiek dauden herri edo hiriak beste ikuspegi batetik ezagutu ditzaten. Utzi lan hori ikaskideen esku; haiek egin ditzakete aurkezpenak ikaskideen aurrean.

Herri eta hiriak mapan kokatu ondoren, eskatu, taldeka, nolabait ezagutzen dituztenak (familia, lagunak, oporrak eta abar direla-eta) aukeratzeko. Ikaskideei garrantzitsutzat jotzen dutena, hots, gehien gustatzen zaiena, azalduko diete, nahi duten moduan.

Ba al zekiten herri edo hiri horretan munduarentzat hain garrantzitsua den gauza bat zegoela? Baliotsua dela iruditzen zaie?

Gure III. proposamena: Historia

Hurrengo web-estekan gizadiaren kultur ondare diren Espainiako ondasunen zerrenda aurkituko dugu...

<http://whc.unesco.org/en/list/&order=country#alphaS>

Ondasun bakoitza bere testuinguruan kokatzeko, ikasleek ondasunak aipatu ditugun hiru motetan (materiala, naturala eta immateriala) sailkatzea proposatzen dizuegu.

Egongo da agian hainbat tipologiekin bat datorren ondasunen bat? Zergatik?